

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2021eko otsailaren 23ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena**

– Erabakiak:

#### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 71/2021 Erabakia, otsailaren 23koa. Onestea asmo protokoloa sinatu dadila Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekin, Gasteizko Udalarekin eta Gasteizko Elizbarrutiarekin, "Martxoaren 3ko Biktimen Oroimenerako Zentroa" garatzeko.

#### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 72/2021 Erabakia, otsailaren 23koa. Onestea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda aldatzea.

#### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 73/2021 Erabakia, otsailaren 23koa. Onestea tresna teknologikoak erabiltzeko betebeharrak ezartzen duen foru arauaren proiektua.

Foru Gobernu Kontseiluaren 74/2021 Erabakia, otsailaren 23koa. Onestea hartzekodunen hitzarmena aldatzeko proposameneari jasotako aukera alternatiboa hartzea, Sevillako 2 zenbakiko Merkataritza Epaitegian egiten ari den 518/2012 konkurtso prozeduraren barruan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 75/2021 Erabakia, otsailaren 23koa. Onestea, Nekazaritza Sailak eskatuta, 1/2021 konpromiso kreditua sortzeko espediente, gastuen egoeraren "Nekazaritza azpiegiturak hobetzea. Deialdi berria" partidari, eta onestea, halaber, kreditua transferitzeko 100.000,00 euroko 1/2021 espediente, funtsez hornitzeko "Gasteizko Udala. Bideak" partida.

Foru Gobernu Kontseiluaren 76/2021 Erabakia, otsailaren 23koa. Onestea, Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskaturik, 1/2021 konpromiso kredituaren transferentziaren espediente, 34.675,93 euroko zenbatekoarekin, zeina 2023ko urtekoari baitagokio, funtsez hornitzeko gastuen egoerako "Meatzaritza paisaietan ingurumena lehengoratzeko: Arabako Mendialdeko asfalto naturalak. AUKK" partida.

#### LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 77/2021 Erabakia, otsailaren 23koa. Onestea Kontseiluaren azaroaren 24ko 594/2020 Erabakiaren bidez emandako dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa ematea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 78/2021 Erabakia, otsailaren 23koa. Onestea Maeztuko Administrazio Batzarrari baimena ematea, "Maeztuko urbanizazioa-1. fasea" obrak aldi baterako finantzatzeko epe laburrerako kreditu eragiketa bat hitzartzeko.

#### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 79/2021 Erabakia, otsailaren 23koa. Onespina ematea Bizkaiko Foru Aldundiarekiko lankidetzak hitzarmena berresteko foru arau proiektuari. Hitzarmen hori N-240 errepidean Ubideko udalerrira sartzeko hegoaldeko bidegurutzeko berrantolatua eta hobetzeko obrak eraikuntza eta egikaritze proiektua idazteko da.

**GIZARTE POLITIKEN SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 80/2021 Erabakia, otsailaren 23koa. Onestea Berrikuntzaren, Kudeaketa Sistemen eta Ebaluazioaren Zuzendaritzaren titularraren izendapena.

**INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 81/2021 Erabakia, otsailaren 23koa. Onespina ematea prozedura ireki arrunt bidez kontratatzeari Arabako parke naturalen kudeaketa integralerako zerbitzua, 1.887.817,80 euroko aurrekontuarekin, BEZa barne, eta gauzatzeko bi urteko epearekin.